

‘Traunkortasunari Hamaika Begirada’ izeneko jardunaldia antolatu du Debagoiena 2030 ekimenak maiatzean

- **Klima larrialdia eta energia Debagoiengan izango da aurtengo gai ardatza eta jardunaldi nagusia maiatzaren 24an izango da, Arrasateko Kulturateko Klaustroan.**
- **Egitarau osoaren baitan, ‘Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak’ izenburupean, herriz herri ibiliko den erakusketa bat ere antolatu dute.**
- **Klima larrialdiaren testuinguruan gizarte bezala esku artean ditugu erronken gainean hausnartzeko aukera emango du jardunaldiak, arlo eta ikuspegi desberdinetako protagonisten eskutik.**

2024-05-06

‘Iraunkortasunari Hamaika Begirada’ izenburupean, klima larrialdiaz eta energia trantsizioaz hausnarketa egiteko jardunaldia antolatu du Debagoiena 2030 ekimenak, Debagoieneko Mankomunitatearekin eta eskualdeko udalekin elkarlanean. Helburua da Klima Larrialdiak Debagoiengan izango duen inpaktua ezagutzea, arlo eta ikuspegi desberdinak elkarjosiz.

Jardunaldi nagusia maiatzaren 24an egingo da, Arrasateko Kulturateko klaustroan eta bertan, eremu desberdinetako adituak eta arituak izango dira, Debagoieneko errealitatearen berri ikuspegi desberdinetatik emateko eta datozkigun erronken gainean aritzeko.

Hona hemen, maiatzerako antolatutako egitaraua:

IRAUNKORTASUNARI HAMAIKA BEGIRADA Jardunaldi Nagusia

Nola eragingo du Klima Larrialdiak Debagoiengan?

HIZLARIAK:

- Onintze Salazar (Euskalmet/Tecnalia): *Klima Larrialdia Debagoiengan*
- Iñaki Etxebeste (Errez/Tantai): *Klima Larrialdiaren eraginak Debagoieneko Biodibertsitatean eta lehen sektorean*
- Adriana Aguirre (Tecnalia): *Klima Larrialdiaren eraginak Debagoieneko hirigintzan eta lurralde antolamenduan*
- Iñaki Antiguada (EHU): *Klima Larrialdiaren eginak Debagoieneko ur-sisteman*

- Elisa Sainz de Murieta (EHU/BC3): *Eskualde garapenaren gakoak Klima Larrialdiaren aurrean: Energia trantsizioaren gakoak*
- Markel Peñalba (MU/Ikerbasque): *Klima Larrialdiaren eraginak eskualdeko industrian*
- Unai Pascual (Ikerbasque/BC3): *Klima aldaketa eta bertako eredu sozio-demografikoenganako eraginak: Fluxu demografikoa eta osasuna*

NOIZ: Maiatzak 24, 9:00-16:30

NON: Kulturateko klaustroa, Arrasate

NORI ZUZENDUA: Eskualdeko eragile eta herritarrei

* Bertan bazkaltzeko aukera egongo da

* Jardunaldi nagusian izena emateko: Bete [formulario hau](#) maiatzaren 17a baino lehen.

Tokiko administrazioa energia trantsizioaren aurrean

Jardunaldi nagusiaz gain, eskualdeko administrazio publikoak egun bizi dugun erronka konplexuen garaian bete beharreko rola gainean hausnartzeko espazioa ere sortu gura izan du Debagoiena 2030 ekimenak, fokua ipiniaz energia trantsizioaren alorrean. Horretarako, hurrengo saio hau ere antolatu du:

TOKIKO ADMINISTRAZIOA ENERGIA TRANSIZIOAREN AURREAN

HIZLARIAK: Miren Larrea (Orkestra), Beñat Irasuegi (Talaioskoop/Olatukoop), Gil Savans (Osona), eta Eneko Antzuola (LKS Next LEGAL)

NOIZ: Ekainak 12, 9:30-13:00

NON: Oñatiko Udaletxeko Pleno Aretoan

NORI ZUZENDUTA: Bereziki eskualdeko zein inguruko administrazio publikoetako (Mankomunitatea eta Udalak) kideak, politikariak zein teknikariak.

* Tokiko administrazioari buruzko saio honetan izena emateko [formulario hau](#) betetzea eskertuko genizuke.

Erakusketa ibiltaria

Bestalde, testuinguru honetan, larrialdia eta trantsizio energetikoa hizpide dituen erakusketa ere antolatu du Debagoiena 2030 ekimenak, Debagoieneko diagnostiko energetikoa eta bere inpaktuak ezagutarazi, aukerak mahai-gaineratu, eta erronka honen inguruko hausnarketak partekatzeko. Eskoriatzan eta Aramaion egongo da ikusgai erakusketa maiatzean zehar. Gero, Bergaran eta Arrasaten ere jarriko da. Erakusketan bertan, egun baten, Goienarren eskutik, energia fakturen inguruko azterketa egiteko aukera eskainiko da.

Hona hemen, Eskoriatzako eta Aramaioko datak eta ordutegia.

'DEBAGOIENeko EGOERA ETA AUKERA ENERGETIKOAK' erakusketa

ESKORIATZAN

NOIZ: Maiatzak 14tik 17ra

NON: Ibarraundi Museoan

ORDUTEGIA: Maiatzak 14tik 16ra bitartean, 11:00etik 13:00ra eta 17:00tik-19:00ra zabalik.

Maiatzaren 17an, 11:00-13:00 Azokan.

Energia fakturen inguruko azterketa Goienarren eskutik

NOIZ: Maiatzak 15ean 17:00tik 19:00ra eta maiatzaren 17an, 11:00tik 13:00ra.

NON: Ibarraundi museoan

*Ezinbestekoa da fakturak eramatea

*Hitzordua eskatzeko, deitu 674 11 19 71 telefono zenbakira edo idatzi ingurumena@eskoriatza.eus helbidera.

ARAMAION

NOIZ: Maiatzak 20tik 26ra

NON Sastiñan

ORDUTEGIA: 10:00tik 14:00ra eta 17:00tik 20:00ra

*Bisita gidatua egingo da maiatzaren 21ean, 18:30ean.

Energia fakturen inguruko azterketa Goienarren eskutik

NOIZ: Maiatzaren 24an, 10:00tik 13:00ra eta 15:00tik 19:00ra.

*Ezinbestekoa da fakturak eramatea

*Hitzordua eskatzeko, deitu 699 99 00 49 telefono zenbakira edo idatzi ingurumena@gorbeialdea.eus helbidera.



Garapen
Irunkorrerako
Sarea

